

4. JARDUERAK:



Gure enpresak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa aplikazio on bat sortzea. Hau da, praktikoa eta erabiltzeko erraza den aplikazio bat sortu behar dugu eta baita bidaia agentziekin aliantza on bat sortu.

Aplikazioa sortu ahal izateko, informatikari edota programatzaile bat kontratatuko dugu.

Gure proiektuaren berri emango diogu eta aplikazioak izan behar dituen ezaugarri guztien xehetasunak zeintzuk diren azalduko diogu. Behin kontzeptua argi duenean, aplikazioarentzat hiru aukera desberdin aurkeztuko ditu eta gehien bat datorrena aukeratuko dugu guztion artean. Honetaz gain, pertsona hori aplikazioarekin ditugun arazoak konpontzen eta aktualizazioak egiten arduratuko da.

Gure enpresak aurrera egiteko burutu beharko dugun beste ataza bat, bidaia agentziekin enpresarekin harremanetan jartzearena da. Horretarako, beraiekin harremanduko gara internet edo telefono bidez, beraien web gunean argi uzten baitutelako telefono zenbakia edo emailaren helbidea.

Aplikazioa arrakastatsua izan dadin, publizitate egokia izatea ezinbestekoa da. Horretarako, aplikazioaren iragarkiak interneten eta gure sare sozialetan zabalduko ditugu. Guk iragartzeaz gain, bidaia agentziek esperientzia handiagoa izatean, errazagoa izango dela beraiek ere publizitatea egiten badute. Izan ere, bezero finkoak dauzkate eta hauek gure aplikazioa ezagutzeko erraztasunak izango dituzte.